


Año XLIX. urtea

124 - 2017

Uztaila - Abendua

Julio - diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Komunikazio-antsietatea euskara bigarren hizkuntza dutenengan

Jasone CENOZ, Alaitz SANTOS

Komunikazio-antsietatea euskara bigarren hizkuntza dutenengan

Ansiedad comunicativa en euskara como segunda lengua

Communicative anxiety in Basque as a second language

Jasone CENOZ

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

jasone.cenoz@ehu.eus

Alaitz SANTOS

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

alaitz.santos@ehu.eus

Lana honek MINECO/FEDERen (laguntza-zenbakia: EDU2015-63967-R) eta Eusko Jaurlaritzaren (laguntza-zenbakia: DREAM IT-714-13) laguntza jaso du.

Jasotze data: 2017/08/14. Behin-behineko onartze data: 2017/09/29. Behin betiko onartze data: 2017/10/18.

LABURPENA

Artikulu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan H1 gaztelania duten hiztunen euskararekiko komunikazio-antsietateari buruzko ikerketa bat aurkezten da. Artikulua-ren xedea da euskara bigarren hizkuntza duten hiztun helduen hizkuntza horrekiko antsietatearen inguruan sakontzea. Ikerketa honetan 346 subjektuk parte hartu zuten, eta eskolatuak izan zireneko hizkuntza-ereduaren arabera bereizi ziren. Tresna kuantitatiboak eta kualitatiboak erabili ziren datuak biltzeko. Emaitzek adierazten dute hiru taldeen artean diferentzia esanguratsuak daudela euskararekiko antsietateari dagokionez. Datu kualitatiboan argitan, euskararekiko antsietatean eragiten duten sei faktore identifikatu dira.

Gako hitzak: hizkuntza-antsietatea; bigarren hizkuntza; euskara; hizkuntza-ereduak.

RESUMEN

En este artículo se presenta un estudio sobre la ansiedad comunicativa en euskara de hablantes cuya L1 es el castellano en la Comunidad Autónoma del País Vasco. El artículo tiene como objetivo profundizar en el estudio de la ansiedad de los hablantes adultos hacia el euskara como L2. El estudio incluye 346 participantes divididos en tres grupos según el modelo lingüístico en el que habían estudiado. Se utilizaron instrumentos tanto cuantitativos como cualitativos para la recogida de datos. Los resultados indican que existen diferencias significativas entre los tres grupos en la ansiedad hacia el euskara. También se identificaron en los datos cualitativos seis factores que pueden producir ansiedad.

Palabras clave: ansiedad lingüística; segunda lengua; euskara; modelos lingüísticos.

ABSTRACT

This article reports a study on communicative anxiety in Basque of Spanish L1 speakers in the context of the Basque Autonomous Community. The paper aims at exploring the anxiety of adult learners of Basque as a second language. This study includes 346 participants who were assigned to three groups according to the linguistic model they were enrolled when they were at school. Quantitative and qualitative instruments were used to collect the data. The results indicate that there are significant differences in anxiety towards Basque between the three groups. Six factors that can be the source of anxiety in Basque were also identified from the qualitative data.

Keywords: Language anxiety; second language; Basque; linguistic models.

1. SARRERA. 2. KOMUNIKAZIO-ANTSIETATEA. 2.1. Euskararekiko antsietatea. 3. IKERKETA. 4. METODOA. 4.1. Parte-hartzaileak. 4.2. Tresnak. 4.3. Prozedura. 5. EMAITZAK. 5.1. H1 gaztelania duten hiztunen euskararekiko antsietatea. 5.2. Euskararekiko antsietatean eragina duten aldagaiak. 6. ONDORIOAK. 7. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Hizkuntza-antsietatea aldagai afektibo garrantzitsutzat jotzen da bigarren edo atzerriko hizkuntza baten jabekuntzan eta erabileran (Horwitz et al., 1986). Atzerriko hizkuntzarekiko antsietatea askotariko dimentsioak dituen konstruktua konplexua da, hizkuntza bat ikasteko prozesuan eragina izan dezakeena. Izan ere, bigarren hizkuntzen ikasle eta erabiltzaileek sarritan antsietatea, urduritasuna eta lotsa sentitzen dituzte bigarren hizkuntza erabiltzean. Artikulu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan hiztun helduek euskararekiko duten komunikazio-antsietateari buruzko ikerketa bat aurkezten da. Zehazki, gaztelania lehen hizkuntza eta euskara bigarren hizkuntza dituzten hiztunak ditu aztergai ikerketak. Ondorengo ataletan komunikazio-antsietatea, ikerketaren ezaugarriak, metodoa, emaitzak eta ondorioak aurkeztuko ditugu.

2. KOMUNIKAZIO-ANTSIETATEA

Antsietatea arreta handia erakarri izan duen aldagai afektiboa da (Rachman, 1998). Spielberg-ek (1983, 1. orr.) honela definitu zuen antsietatea: «subjective feeling of tension, apprehension, nervousness, and worry associated with an arousal of the autonomic nervous system» («tentsio, uzkurdura, urduritasun eta ardurazko sentipen subjektiboa, nerbio-sistema autonomoaren aktibazioarekin lotua»). Bigarren/atzerriko hizkuntzarekiko antsietatearen ikerkuntzak garapen handia izan du azken hamarkadetan (has tapenetako ikerketari buruzko gainbegirada baterako, ikus Scovel, 1978). MacIntyre eta Gardner-ek (1991) hiru dimentsio bereizi zituzten antsietatean: antsietate orokorra, egoerazko antsietatea eta hizkuntza-antsietatea.

Hizkuntza-ikaskuntzan, antsietatea egoerari lotutako konstruktutzat jo izan da nagusiki (Horwitz et al., 1986). Autore hauentzat, atzerriko hizkuntzarekiko ikasgelako antsietatea (FLCA, ingelesezko sigletan) litzateke «a distinct complex of self-perceptions, beliefs, feelings, and behaviors related to classroom language learning arising from the uniqueness of the language learning process» («ikasgelan hizkuntza ikastearekin lotutako autopertzepzio, uste, sentimendu eta portaeren uztartze berezia, hizkuntza ikasteko prozesuaren berezko izaerak eragindakoa» 28. orr.). Antsietatea ahozko ekoizpenarekin lotu izan da sarritan, kontzeptuaren azpimota bat sortzeraino: komunikazio-uzkurdua (Horwitz et al., 1986; MacIntyre & Gardner, 1989). Antsietate-mota jakin bat da komunikazio-antsietatea, komunikaziozko ekintza bat egin behar izatearen beldurrak eragiten duena (Rubio, 2004). Horwitz eta besteren (1986) hitzetan, «herabetasun-mota bat da, bereizgarri nagusia pertsonekin komunikatzeko beldurra edo antsietatea duena. Binaka, taldean edo jendarean hitz egiteko zailtasuna izatea, edo adierazitako mezu bat entzun edo ikastekoa, komunikazio-uzkurduraren seinale izan ohi da» (127. orr.). Komunikazio-antsietatea ikasgelaren barruan nahiz gelatik kanpoko gizarte-harremanetan senti liteke. Ikerketa ugari erakutsi dute antsietateak ondorio kaltegarriak dituela bigarren edo atzerriko hizkuntzaren jabeakuntzan, komunikazio-jardunari eta ikaskuntza-prozesuei erasaten baitie (MacIntyre & Gardner, 1991). Dewaele (2002, 2005) adierazi zuen antsietateak atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza kaltetzen duela, ikasleen ikasteko motibazioa apaltzen duelako eta atzerriko hizkuntzarekiko jarrera negatiboak elikatzen dituelako.

Hizkuntza-antsietatea ez da faktore isolatu bat; aitzitik, faktore indibidual, sozial, linguistiko eta egoerazko ugarirekin lotuta dago. Ikerketek antsietatearen eta beste hainbat faktoreen arteko erlazioa aztertu dute; faktore horietako batzuk dira adina, generoa, nortasuna, hizkuntza-maila, motibazioa eta eleaniztasuna, besteak beste (ikus, adibidez, Dewaele, 2007a, 2007b). Atzerriko hizkuntzarekiko antsietatearekin lotu izan den faktoreetako bat hiztunak atzerriko hizkuntza horretan duen maila da. Ikerketa askok antsietateak atzerriko hizkuntzaren errendimenduan duen eragina aztertu dute. Gardner eta MacIntyrek (1993) adierazi zuten, hizkuntza-antsietatea da, «bakarka, errendimenduarekin lotura estuena duen faktorea» (183. orr.), eta nabarmendu zuten hizkuntza-antsietate handia izateak eragin negatiboa duela hizkuntzaren ikaskuntzan eta ekoizpenean. Horwitzek (1986) korrelazio esanguratsu negatiboak aurkitu zituen ikasleen kalifikazioen eta atzerriko hizkuntzarekiko antsietatearen artean, aditzera emanez antsietate-maila altuenak zituzten ikasleek emaitza kaskarragoak lortzen zituztela hainbesteko herstura sentitzen ez zutenek baino. Coulombe-k (2000) ere antzeko emaitzak lortu zituen frantseseko eskolen testuinguruan.

Zenbait ikerketek hiztunak atzerriko hizkuntzan duen mailak haren antsietate-mailan izan dezakeen eraginari erreparatu diote. Oro har, elkarrekin lotuta egon ohi dira hizkuntza-maila altua eta antsietate-maila apala. Adibidez, Sparks eta bestek (1997) adierazi zuten atzerriko hizkuntza bat ikastearen aurrean antsietate-maila altuak zituzten ikasleek emaitza nabarmen kaskarragoak lortzen zituztela irakurmenean, entzumenean eta mintzamenean. Liu-k (2006) atzerriko hizkuntzarekiko ikasgelako antsietatearen eskala (FLCAS) erabili zuen Txinan ingelesezko ikasketak egiten ez zituzten

unibertsitateko 547 ikasle txinatarrekin egindako ikerketa batean, eta berretsi zuen antsietate-maila apalenak hizkuntza-maila altueneko ikasleek zituztela. Santos, Cenoz eta Gorter-ek (2015) ere aurkitu zuten partaideen ingeleseko maila orokorrak eragin nabarmena zuela ingelesarekiko hizkuntza-antsietatean. Modu bertsuan, Dewaele eta MacIntyre (2014) ondorioztatu zuten atzerriko hizkuntzan gaitasun handia zuten ikasleek atzerriko hizkuntzarekiko ikasgelako antsietate txikiagoa dutela, eta atzerriko hizkuntzarekin gehiago gozaten dutela. Ikerketa askok hizkuntza-maila altuak eta antsietate-maila baxuak erlazionatzen dituzten arren, aurkako erlazioa aurkitu dutenak ere badira (ikus, esaterako, Ewald, 2007; Jee, 2014).

Atzerriko hizkuntzari dagokionez ere, gaitasunaren autopertzepzioa faktore garrantzitsua da pertsonen mintzatzeko eta komunikatzeko agertzen duten prestasunean (Donovan & MacIntyre, 2004). Gaitasunaren autopertzepzioa bigarren hizkuntzarekiko komunikazio-uzkurdurarekin erlacionatu izan da (MacIntyre et al., 1997), eta haren eraginak komunikatzeko trebetasunari erasan diezaioke (McCroskey & Richmond, 1990). Hitzun askok beren hizkuntza-gaitasuna ebaluatzeko joera izaten dute. Horrek eragin positiboa izan dezake ikasteko estrategien garapenean, baina, bestalde, hitzunen antsietatea areagotu dezake, dituzten gabezia linguistiko batzuen jakitun izatean (MacIntyre & Gardner, 1989).

Hizkuntza-maila altuak –autopertzepzioaren arabera– atzerriko hizkuntzarekiko antsietate-maila baxuekin lotuta daude (Dewaele et al., 2008), eta hizkuntza-maila baxuak, berriz, atzerriko hizkuntzarekiko antsietate-maila altuekin (Dewaele & Thirtle, 2009). Dewaele eta bestek (2008) hizkuntza-mailaren autopertzepzioak atzerriko hizkuntzarekiko antsietatean duen eragina aztertu zuten. Subjektuak 464 pertsona eleaniztun ziren, eta beren ustez zer mintzamen-mailaz zuten adierazteko eskatu zitzairen. Kasu honetan, galdera bakar bat egin zen atzerriko hizkuntzarekiko antsietatea neurtzeko, H1, H2, H3 eta H4ri buruzko 5 puntuko Likert eskala erabiliz. Ikerketaren emaitzek erakutsi zuten mintzamen-mailak –autopertzepzioaren arabera– erlazioa zuela H2, H3, eta H4rekiko hizkuntza-antsietatearekin. Izan ere, beren burua hizkuntza-maila altukotzat jo zuten parte-hartzaileek atzerriko hizkuntzarekiko antsietate gutxiago zutela adierazi zuten. Liu eta Jackson-ek (2008) ere aurkitu zuten autoebaluazioaren arabera ingeleseko maila orokorrak eragin nabarmena zuela ingelesarekiko hizkuntza-antsietatean. Maila altuagoko parte-hartzaileek antsietate gutxiago agertzen zuten maila apalagoekin baino.

Kitanok (2001) ikerketa bat egin zuen AEBetan japoniera ikasten ari ziren unibertsitateko ikasleekin, eta FLCASen bertsio egokitu bat eta mintzamen-mailaren autoebaluazioari buruzko hiru neurketa erabili zituen. Emaitzen arabera, beren mintzamen-maila apalagoztat jotzen zuten ikasleek antsietate gehiago zuten. Kitanok (2001) ondorioztatu zuen, halaber, maila aurreratuko ikasleen artean ebaluazio negatiboaren beldurrak erlazio estua zuela antsietatearekin.

Bestalde, hizkuntza baten testuingurua eta hizkuntzarekiko esposizioa garrantzi handikoak dira hizkuntza ikasteko prozesuan eta hizkuntza-errendimenduan. Hizkuntzak ikasteko bi testuinguru-mota nagusi bereizi izan ohi dira: testuinguru

naturala eta ikasgelakoa (Jiménez Catalán & Ruiz de Zarobe, 2009). Hain zuzen ere, komunikazio-antsietatea berdin senti liteke bi testuinguruotan, alegia, ikasgelaren barruan nahiz gelatik kanpoko gizarte-harremanetan. Zenbait ebidentzia bada pentsatzeko atzerriko hizkuntzaren gela etengabeko antsietatea eragiten duen testuingurua izan daitekeela (ikus Horwitz et al., 1986, Horwitz, 2001). Ikaskideak edo irakaslea ulertzeko gai ez izatea edo haiek norbera ez ulertzea dira ikasleak hizkuntza-ikasgela baten testuinguruan herostura sentitzeko arrazoietakoz batzuk (Baran-Lucarz, 2011). Gelaren aurrean ahoz jardun behar izatea, ahozko aurkezpenak nahiz bat-bateko aurkezpenak eginez, antsietatea areagotzearekin erlazionatzen da (Young, 1990; Palacios, 1998). Hitzunaren antsietatean eragiten duen beste faktore bat alderaketa soziala da. Japonian egindako ikerketa batean, Yoshidak (2013) nabarmendu zuen zer garrantzitsua zen ikasleentzat beren ikaskideen gaitasun-maila zehaztea, beren mailarekin alderatuta. Ikasleak ohartzen baziren denek antzeko gaitasun-maila zutela, atzerriko hizkuntzarekiko ikasgelako antsietatea nabarmen apaltzen zen. Pertsonak, ikasgelaren testuinguruan ez ezik, eguneroko bizitzako testuinguruetan ere senti dezakete antsietatea, intentsitate desberdinez bada ere (Baran-Lucarz, 2011). Dewaelek (2007b) ondorio gisa atera zuen atzerriko hizkuntzaren erabiltzaileak lasaiago sentitzen direla lagunekin testuinguru pribatuetan arrotzekin baino; beraz, solaskidea nor den ere kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsua da. Woodrow-k (2006) seinatu zuen xede-hizkuntzako jatorrizko hiztunekin komunikatzea zela antsietate-iturri ohikoenetakoz bat. Australian ingeleseko 275 ikaslerekin egindako ikerketaren ondorio bat zen parte-hartzaile guztiek sentitu zutela nolabaiteko antsietatea ingelesez hitz egiterakoan, baina jatorrizko hiztunekiko komunikazioa zen estres-eragile gisa gehien aipatutako faktorea; aldiz, jatorrizko hiztun ez zirenekin komunikatzeak ez zuen hainbesteko antsietaterik sortzen.

2.1. Euskararekiko antsietatea

Azken 30 urteetan, hainbat hezkuntza-politika jarri dira abian, helburu argi batekin: euskara irakats-hizkuntza gisa ezartzea EAEko hezkuntza-sisteman, hezkuntzako etapa guztietan (Gorter, Zenotz, Etxague & Cenoz, 2014; Etxeberria & Etxeberria, 2015). Ondorioz, aldaketa nabarmenenetakoz bat izan da hezkuntza-sistema elebakarra izatetik elebidun izatera igaro dela. Euskara eta gaztelania derrigorrezko irakasgai dira ikastetxe guztietan, eta hiru hizkuntza-eredu garatu dira: A erdua, B erdua eta D erdua. Gaur egun, eskolaurreko eta lehen hezkuntzako ikasleen %90 B edo D eredueta eskolatuta dago.

Euskal Autonomia Erkidegoan euskara denez irakats-hizkuntza nagusia, ohikoa da H1 gaztelania duten ikasleek eduki akademiko guztia euskaraz ikastea, eta, gaur egun, euskara-gaztelania elebidunen %54,8ren H1 gaztelania da (Eusko Jaurlaritza, 2016). Euskara-gaztelania elebidun batzuek erraztasun handiagoa dute euskaraz gaztelaniaz baino (%27k), beste batzuek antzeko erraztasuna dute bietan (%30ek) eta %43 errazago moldatzen dira gaztelaniaz. Gaztelaniak hedapen handia du eta asko erabiltzen da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta euskararen erabileran, berriz, hainbat faktorek eragiten dute, hala nola hizkuntza-mailak, lehen hizkuntzak (H1), eremu soziolinguistikoa, gizarte-harremanen sareek eta euskararekiko jarrekek.

EAEko egoera soziolinguistikoa askotarikoa da kokapen geografikoaren arabera, eta oraindik arrakala bat dago ezagutzaren eta gizarte-erabileraren artean. Horregatik, kasu askotan H1 euskara ez duten hiztun ugari tentsioa eta urduritasuna sentitzen dituzte egoera formal eta informaletan euskaraz hitz egiterakoan.

Oraindik orain, Eusko Jaurlaritzak (2015) *Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen lanketa* izenburu duen txostena argitaratu du, eta txosten horretan gizartean dauden euskararen inguruko diskurtsoak, balioak, jarrerak eta erabilera aztertu dira. Galde-sortak, foroak, Delphi teknikak eta taldeko eztabaidak egin eta erabili ziren adituen ekarpenak jasotzeko, bai eta hiru hiztun-talderi buruzko datuak biltzeko ere: euskara asko erabiltzen duten euskara-gaztelania elebidunak, eguneroko bizitzan euskara erabiltzen ez duten euskara-gaztelania elebidunak eta gaztelaniadun elebakarrak. Lortutako emaitzek oso errealitate interesgarria erakutsi zuten. Lehenik eta behin, euskara ama-hizkuntza ez duten hiztunen –*euskaldun berriak* deituak– erronka nagusia ez da euskararen ezagutza, haren erabilera baizik. Hiztun asko larri, urduri eta lotsatuta sentitzen dira euskara erabiltzerakoan, akatsak egiteko edo besteek haiei barre egiteko beldurra dutelako, eta hori izugarritzko oztopoa da komunikaziorako. Hain zuzen ere, beldur hori dela-eta hiztun ugari hizkuntza erabiltzen saiatu ere ez dira egiten, primeran ulertu arren. Hizkuntza-ziurtagiri bat lortzeko presioa, lanean euskaraz hitz egin beharra eta norbere gaitasun-mailarekiko konfiantzarik eza dira hiztunen antsietatean eragiten duten beste faktore batzuk.

Santos, Gorter eta Cenoz-ek (2017) Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan H1 gaztelania eta H1 euskara zuten hiztunen bigarren hizkuntzarekiko komunikazio-antsietateari buruzko ikerketa bat burutu zuten. Aurkitutako emaitzen arabera, H1 gaztelania zuten partaideek euskararekiko (H2) antsietate gehiago zuten H1 euskara zuten partaideek baino, azken talde hauen antsietate maila gaztelaniarekiko (H2) baxuagoa izanez.

Peralesek (1996) ikerketa bat egin zuen euskaltegietan euskara ikasten ari ziren 679 ikaslerekin. Emaitzek erakutsi zuten lotura garbia zegoela antsietatearen eta hizkuntza-errendimenduaren artean. Antsietate txikia agertzen zuten ikasleek kalifikazio hobeak atera zituzten antsietate handia agertzen zutenek baino. Peralesen (1996) emaitzen arabera, bestalde, euskararen goiko eta erdiko mailetan zeuden ikasleek hasiberriek baino antsietate gutxiago sentitzen zuten. Euskaraz maila altuagoa zuten ikasleek antsietate gutxiago sentitzen zuten.

3. IKERKETA

Ikerketa honen xedea hiztun helduen H2rekiko antsietatea aztertzea da, Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan. Ikerketaren beste helburu bat da euskararekiko komunikazio-antsietatean eragina duten faktoreak aztertzea, eta H1 gaztelania duten hiztun askok euskara (H2) erabili eta hitz egitera ez ausartzeko arrazoietakoa batzuk ulertzea, hiztunok hizkuntza hainbat urtez ikasten aritu arren. Jada aipatu dugunez, zenbait ikerketek euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen

arrakala azpimarratu dute. Beraz, ikerketa honetan harago joan eta sakontasun handiagoz ulertu nahi da H2rekiko komunikazio-antsietatea bi hizkuntza ofizial dauden lekuetan.

Ikerketa-galderak honako hauek dira:

1. IG. H1 gaztelania duten hiztunek antsietatea sentitzen al dute euskaraz (H2) jardutean?
2. IG. Zer aldagaik dute eragina euskararekiko komunikazio-antsietatean?

4. METODOA

4.1. Parte-hartzaileak

Ikerketa honetan H1 gaztelania duten 346 subjektuk hartu dute parte. Horietako gehienek euskara izan zuten irakats-hizkuntza eskolan (N=191), hau da D ereduan izan ziren eskolatuak lehen eta bigarren hezkuntzan. Laginaren %30ek (N=105) B ereduan ikasi zuten, euskara eta gaztelania –biak– izanda irakats-hizkuntzak, eta askoz gutxiagok (N=50) gaztelania, A ereduan eskolatuak izanez.

Lagina osatzeko, Bilbon eta Donostian ikasten ari ziren unibertsitateko gizarte-zientziatiko bigarren eta hirugarren urteko ikasleak (N=247), zehazki UPV/EHUko hezkuntzaren eta enpresa-ikasketen arlokoak, eta ikasketak bukatu berritan Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan eta hezkuntza-erakundeetan lanean ari ziren profesional gazteak (N=99) hautatu ziren.

Ikerketa honetako parte-hartzaileetatik 208 emakumezkoak ziren (%60) eta 138 gionezkoak (%40), eta haien batez besteko adina 23,05 urte zen (d. tip.=5,72).

Parte-hartzaileei eskatu zitzairen ebaluatu zezatela euskaraz eta gaztelaniaz zuten maila entzumenean, mintzamenean, irakurmenean eta idazmenean, 1etik 10era bitarteko eskala batean (ikus, halaber, Dewaele *et al.*, 2008; Thompson & Lee, 2013), eta autoebaluazioaren arabera euskara eta gaztelaniazko hizkuntza-mailaren guztizko puntuazioak atera ziren. Emaitzak 1. taulan jaso dira, batezbestekoak eta desbideratze tipikoak emanez.

1. taula. Gaitasuna euskaraz eta gaztelaniaz

(gehienekoa=10)	Euskara		Gaztelania	
	Bb.	D. tip.	Bb.	D. tip.
Entzumena	8,53	1,81	9,84	0,46
Mintzamena	7,36	2,14	9,76	0,59
Irakurmena	8,30	1,94	9,76	0,59
Idazmena	7,53	2,08	9,52	0,93

Parte-hartzaileek adierazi zuten maila altuagoa zutela beren H1 den gaztelaniaz, euskaraz baino. Halaber, puntuazio altuagoak izan zituzten trebetasun pasiboetan, aktiboetan baino. Gaitasun orokorrerako batez besteko puntuazioa (gehienekoa= 40) 31,72 (d. tip.=7,48) izan zen euskaraz, eta 38,87 (d. tip.=2,24) gaztelaniaz. Euskaraz desbideratze tipikoa handiagoa izateak adierazten du H2n (euskara) hizkuntza-maila ez dela H1en (gaztelania) bezain homogeneous.

4.2. Tresnak

Ikerketa honetan, teknika kuantitatiboak (oinarrizko informazioari eta antsietateari buruzko galde-sortak) eta kualitatiboak (*focus group discussions* edo taldeko eztabaidak eta elkarrizketak) erabili ziren datuak biltzeko. Jarraian, tresna bakoitzaren xehetasunak azalduko dira:

Oinarrizko informazioa jasotzeko galde-sorta. Galde-sorta hau parte-hartzaileei buruzko datu demografiko, akademiko eta linguistikoak lortzeko helburuz taxutu zen. Euskarazko eta gaztelaniazko gaitasun-mailaren autoebaluazioak ere barnean hartzen zituen. Galde-sortaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak egin ziren, parte-hartzaileek bi aukeren artean hautatu ahal izan zezaten.

Antsietateari buruzko galde-sorta. Galde-sorta hau Horwitz eta besteren (1986) FLCAS-en egokitzapen bat da. FLCAS eskala bigarren hizkuntzaren jakuntzaren, psikologiaren eta hezkuntzaren arloetan atzerriko hizkuntzarekiko antsietatea aztertzeko gehien erabili denetako bat da. Gure egokitzapenak parte-hartzaileen H2rekin (euskara) lotutako 10 item itxi ditu. Esaldiei puntuazio bat emateko eskatu zitzaizkien parte-hartzaileei, 7 puntuko Likert eskala batean –(1) «erabat kontra» eta (7) «erabat ados»–. Galde-sortako itemak kodetzean, item baten puntuazioak alderantzikatu egin ziren, puntuazio altuenak kasu guztietan antsietate-maila altuekin bat etor zitezkeen. Eskala honen barne-sendotasuna neurtu zen, eta Cronbachen alfak .87 eman zuten. Emaizta horrek galde-sortaren baliozotasuna egiaztatzen du (DeVellis, 1991). Antsietateari buruzko galde-sorta euskaraz eta gaztelaniaz egin zen, parte-hartzaile bakoitzak nahiago zuten bertsioa aukeratu zezan.

Taldeko eztabaidak eta elkarrizketak. Datu kuantitatiboez gain, datu kualitatiboak bildu ziren, H1 gaztelania duten hiztunek beren bigarren hizkuntza –euskara– erabiltzearen inguruan zituzten uste eta sentipenak sakontasun handiagoz aztertzeko. Horretarako, lau elkarrizketa eta taldeko sei eztabaida egin ziren profesional gazteekin eta unibertsitateko ikasleekin. Hala elkarrizketek nola taldeko eztabaidek ordubete pasako iraupena izan zuten. Hizpide izan ziren gaietako batzuk hauek izan ziren: zergatik sentitzen diren urduri euskaraz hitz egitean, zer eragin duen testuinguruak antsietatearen bilakaeran eta nolako eragina duen antsietateak komunikazioan. Taldeko eztabaidak eta elkarrizketak gaztelaniaz egin ziren.

4.3. Prozedura

Parte-hartzaileek datuak ikerketaren helburuetarako erabiltzen uzteko baimen bat sinatu zuten. Lehenengo ikerketa-galderari erantzuteko, datu kuantitatiboak SPSS

programaren 22. bertsioa erabiliz aztertu dira. Datu kualitatiboak Atlas.ti programarekin kodetu eta aztertu dira, euskararekiko antsietatean eragiten duten faktore nagusiak identifikatzeko.

5. EMAITZAK

5.1. H1 gaztelania duten hiztunen euskararekiko antsietatea

Lehenengo ikerketa-galderaren bitartez, H1 gaztelania duten hiztunek beren H2 den euskararekiko sentitzen duten antsietatea aztertu nahi zen. Lehendabizi, analisi deskribatzaile bat egin zen antsietateari buruzko galde-sortako 10 itemekin. 2. taulan, galde-sortako item guztien batezbestekoak eta desbideratze tipikoak jaso dira. Gehieneko puntuazioa 7 da.

2. taula. Euskararekiko antsietatea

Itemak	Bb.	D. tip.
1. Ez naiz eroso sentitzen euskaraz hitz egiterako orduan	3,10	1,78
2. Urduri jartzen naiz euskaraz erantzun behar dudanean	3,24	1,88
3. Eroso sentitzen naiz lagunen aurrean euskaraz hitz egiten dudanean	2,96	1,59
4. Batzuetan urduri jartzen naiz pentsatzerakoan besteek nitaz barre egingo dutela nik euskaraz hitz egiterakoan	3,43	1,83
5. Euskaraz hitz egiterako orduan akatsak egiten baditut, kezkatu egiten naiz	4,34	1,59
6. Nahiz eta euskarako maila altua eduki, urduri jartzen naiz	3,87	1,65
7. Urduri jartzen naiz euskaraz hitz egin behar dudanean gaia alde zuzenetik prestatu gabe	3,53	1,84
8. Deseroso sentitzen naiz, jendaurrean euskaraz hitz egiterako orduan	3,16	1,98
9. Gaizki sentitzen naiz pentsatzen dudana euskaraz adierazteko gai ez naizenean	4,29	1,65
10. Urduri jartzen naizenean, euskarako maila baxuagoa dudala dirudi	4,62	1,65


Emaitzek aditzera ematen dutenez, H1 gaztelania duten hiztunek antsietatea sentitzen dute euskaraz jardutean, batik bat akatsak egiteko beldurra dutelako (bb.= 4,34, d. tip.=1,59) eta ez direlako gai pentsatzen dutena euskaraz adierazteko (bb.= 4,29, d. tip.= 1,65). Euskaraz mintzatzean urduri sentitzeak egiaz dakitena baino gutxiago dakitela pentsarazten die (bb.= 4,62, d. tip.=1,65). Hain zuzen, parte-hartzaile askok adierazi zuten euskaraz ondo moldatzen badira ere, urduri jartzen direla hitz egiterakoan (bb.= 3,87, d. tip.=1,65).

Parte-hartzaileek ikastetxean euskararekiko esposizio-maila oso desberdinak izan zituztenez, datuak osteraz aztertu ziren faktore bakarreko ANOVA analisia eginez. Parte-hartzaileak hiru taldetan sailkatu ziren, eskolan zeudenean izan zuten hizkuntza-ereduaren arabera: A eredu, B eredu eta D eredu. 3. taulan, galde-sortako 10 itemen batezbestekoak eta desbideratze tipikoak jaso dira.

3. taula. Hizkuntza-eredua eta antsietatea

Itemak	A eredia		B eredia		D eredia		F	Esang
	Bd.	D. tip.	Bd.	D. tip.	Bd.	D. tip.		
1. Ez naiz eroso sentitzen euskaraz hitz egiterako orduan	4,10	1,91	3,54	1,71	2,59	1,60	21,02	0,00
2. Urduri jartzen naiz euskaraz erantzun behar dudanean	4,44	1,83	3,78	1,78	2,63	1,71	28,37	0,00
3. Eroso sentitzen naiz lagunen aurrean euskaraz hitz egiten dudanean	3,98	1,76	3,41	1,47	2,45	1,40	28,19	0,00
4. Batzuetan urduri jartzen naiz pentsatzerakoan besteek nitaz barre egingo dutela nik euskaraz hitz egiterakoan	3,84	1,85	3,85	1,72	3,09	1,83	7,39	0,00
5. Euskaraz hitz egiterako orduan akatsak egiten baditut, kezkatu egiten naiz	4,18	1,71	4,65	1,27	4,22	1,69	2,78	0,06
6. Nahiz eta euskarako maila altua eduki, urduri jartzen naiz	3,48	1,61	4,24	1,50	3,76	1,71	4,45	0,01
7. Urduri jartzen naiz euskaraz hitz egin behar dudanean gaia alde aurretik prestatu gabe	4,82	1,69	3,93	1,58	2,96	1,78	27,53	0,00
8. Deseroso sentitzen naiz, jendaurrean euskaraz hitz egiterako orduan	3,18	2,22	3,40	1,97	3,02	1,90	1,24	0,28
9. Gaizki sentitzen naiz pentsatzen dudana euskaraz adierazteko gai ez naizenean	4,30	1,65	4,67	1,33	4,09	1,78	4,18	0,01
10. Urduri jartzen naizenean, euskarako maila baxuagoa dudala dirudi	4,70	1,64	5,04	1,40	4,36	1,74	5,89	0,00

3. taulako emaitzek adierazten dute hamar itemetatik zortzitan diferentzia esanguratsua zeudela hiru taldeen artean. Joera garbi moduan ikus daiteke A eredian eskolatutako parte-hartzaileek B eredian eskolatutakoek baino antsietate handiagoa dutela. D eredian ikasitakoek, berriz, antsietate-maila baxuagoak dituzte item gehienetan. 1. irudiak hiru eredu-tako puntuazioen guztizkoak erakusten ditu.



1. irudia. Hiru ereduetao puntuazioen guztizkoak

Ikus daitekeenez, antsietate-maila altuena A ereduan ikasitako parte-hartzaileek zuten, 41,02ko batezbestekoaz (d. tip.= 10,74), eta jarraian B ereduan ikasitakoek, 40,5ko batezbestekoaz (d. tip.=10,33). D ereduko parte-hartzaileek puntuazio apalagoa zuten batez beste: 33,1 (d. tip.=12,06). Taldeen artean diferentzia estatistikoki esanguratsu bat zegoen, faktore bakarreko ANOVA analisiaren arabera: $F(2,343) = 18.57, p < 0.00$. Tukeyren *post hoc* testak agerian utzi zuen antsietatean diferentzia esanguratsuak zeudela A ereduan eta D ereduan eskolatutakoen artean ($p=0.00$), bai eta B eta D ereduan eskolatutakoen artean ere ($p=0.00$).

5.2. Euskararekiko antsietatean eragina duten aldagaiak

Bigarren ikerketa-galderaren bidez, euskararekiko komunikazio-antsietatea eragiten duten aldagaiak aztertu dira.

Ikerketa-galdera honi erantzuteko, taldeko eztabaidetan eta elkarrizketetan lortutako datu kualitatiboak kodetu eta aztertu ziren, antzeko informazioa multzoka sailkatuz eta ideia eta gai desberdinak elkarrekin lotuz, euskararekiko antsietatea eragiten duten faktore nagusiak identifikatzeko. Elkarrizketen eta taldeko eztabaiden transkripzioetan, euskararekiko antsietatea sortzen zuten sei faktore nagusi identifikatu ziren.

1) Akatsak egiteko beldurra

Antsietate-iturri gisa identifikatutako lehenengo faktorea akatsak egiteko beldurra izan zen. Badirudi horrek antsietate handia eragiten diela gure parte-hartzaileei, eta modu nabarmenean murrizten dituela haien komunikazio-trebetasunak: «Me da miedo cometer errores en euskera, porque claro hoy en día la gente tiene bastante nivel y yo siento que a la hora de decir algo que igual no es, me da miedo, me frena» (S.13). Aldi berean, akatsak egitea barregarri geratzeko beldurrekin

lotuta dago. Elkarrizketatutako askok adierazi zuten zein etsigarria den jendeak beren ahoskerari barre egitea, enpatiarik agertu gabe eta egiten ari diren ahaleginari baliorik aitortu gabe: «Mi ama su lengua materna no es el euskera y a la hora de hablar euskera se pone nerviosa y sobre todo le cuesta porque la gente se ríe, al no ser su ama hizkuntza igual las z o las s las dice diferente y la gente se ríe o hace muecas que tampoco son buenas para la persona que está hablando» (S.18), «Si pronuncias mal la gente se ríe y dices jo para la próxima no lo digo» (S.17).

2) *Hizkuntza-maila*

Hizkuntza-mailaren eta hizkuntza-antsietatearen arteko loturari buruz hainbat iritzi jaso ziren. Parte-hartzaileak euskaraz mintzatzean antsietatea sentitzeko arrazoietakoa bat da iruditzen zaiela hizkuntza horretan ez dutela gaztelaniaz-beren H1- duten adinako mailarik: «Cuando hablo en euskera me cohíbo un montón porque no llego a hablar en el nivel que hablo en castellano» (S.5). Euskaraz erraztasun nahikoa ez izateak ere urduri edo blokeatuta sentiarazten die: «A mí me crea ansiedad el atascarme, te paras de repente y dices que me bloqueo que no sé cómo seguir, no tienes esa fluidez» (S.3), «Yo he aprendido euskera en el colegio [...] pero no intento hablarlo, porque no me veo capaz, es como una negación» (S.1). Elkarrizketetan eta taldeko eztabaidetan, parte-hartzaile batzuek adierazi zuten eskolan euskaraz ikasi zutela, baina gaur egun apenas erabiltzen dutela eta jardun falta horrek batere segurtasunik gabe sentiarazten diela hizkuntza horretan hitz egiterakoan: «La gente con la que me rodeo no hablo en euskera, que es lo primero que me frena que no tengo con quién hablar en euskera» (S.12).

3) *Solaskidearen jarrera*

Gure parte-hartzaileetako batzuek adierazi zuten komunikazio-harremanean solaskideek duten jarreraren arabera sentitzen dutela haien eragina euskaraz hitz egiterakoan: «A mí me influencia la actitud con la que vaya el interlocutor, hay algunos que te intentan ayudar que saben que te estás esforzando y cambian su pronunciación y su ritmo, pero hay otras personas que dicen yo voy a seguir hablando de la misma forma y con el mismo ritmo y ahí la ansiedad me aumenta muchísimo» (S.2). Beste batzuek nabarmendu zuten sarritan solaskideek ebaluatu eta epaitu egiten dituztelako sentipena dutela, haien presiopean sentitzen direla: «Me cuesta mucho cuando tengo que hablar con otra persona en euskera, porque siento que me está juzgando. Tengo esa inseguridad, entonces estoy todo el rato buscando la palabra adecuada» (S.11), eta bereziki euskaldun zaharrekin, haien eskakizun-maila handiagoa delako: «Me siento mucho más nerviosa a la hora de hablar euskera con un euskaldun zahar» (S.1), «Existe una presión, una superioridad del euskaldun zaharra al euskaldun berri» (S.2), «Me siento mucho más evaluado por un euskaldun zahar» (S.12).

4) *Besteekiko alderaketa*

Elkarrizketatutako batzuek antsietatea sentitu ohi dute beren gaitasuna inguruko enarekin alderatzen dutenean. Parte-hartzaile asko urduri sentitzen ziren gaitasunean aldeak nabaritzen zituztenean: «No sabes hablar tan bien como la

gente de alrededor, una velocidad increíble y dices bff si yo voy en bicicleta» (S.17). Zenbaitetan, beren gaitasuna gutxietsi ere egiten dute, besteenarekin alderatzean: «El euskera es un idioma que siempre desde pequeña lo he tenido. Lo que me provoca ansiedad es el hecho de que yo sé euskera pero sé que la persona con la que voy a hablar sabe más que yo, entonces el hecho de que como vergüenza de que te corrija, o no lo digas bien o que de repente en vez de pronunciar la tz pronuncies una ts cosas así» (S.4), «Si están hablando todos en euskera y tienen el EGA y tú tienes el B1 te vas a sentir como un poco retraído, igual no me entiende, igual digo algo que no se dice» (S.1). Alderdi interesgarri bat da besteez norberaren mailari buruz dituzten espektatibek ere eragin garrantzitsua dutela: «Yo tengo el C1 [...] pero de manera general me dirijo en castellano aunque sepa que ese grupo habla en euskera. Las expectativas que los demás tienen sobre ti y si hablas con una persona que domina mucho y yo veo que no voy a controlar mucho, prefiero no hablar» (S.14).

5) *Hizkuntzaren garrantzia gizartean*

Hizkuntzak gizartean duen garrantzia hitzunen antsietatean eragin dezakeen faktore bat izan daiteke. Azpimarratu behar da euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomia Erkidegoan. Horregatik, parte-hartzaile asko lotsatuta senti litezke behar besteko maila ez izategatik: «A mí se me cae la cara de vergüenza el hecho de ser euskaldun y el no dominar el euskera, por ello me genera bastante ansiedad. Creo que tendríamos que hablar todos super bien en euskera» (S.12), «Al ser la lengua oficial más gente lo habla y te va a echar más atrás el no dominarlo perfectamente» (S.17). Aldi berean, euskararen estatus ofiziala dela-eta, parte-hartzaileek sentitzen dute hitz egiterakoan ezin dituztela akats gehiegi egin, gizartean oro har dagoen euskara-maila dela-eta. «El euskera es el idioma que más ansiedad me produce, es decir me da menos vergüenza hablar en inglés por ejemplo, aunque lo haga fatal que en euskera. El inglés es un idioma extranjero, tienes un mayor margen de error, sin embargo hablando en euskera no» (S.5), «Yo creo que una persona puede tener mucha más ansiedad con el euskera, simplemente porque la gente aquí sabe euskera y lo domina más. Aquí la gente te reprocha si no sabes euskera» (S7).

6) *Hizkuntzaren garrantzia lantokian*

Euskarak lantokian duen garrantzia eta euskarako hizkuntza-ziurtagiri bat lortzeko presioa antsietate handia eragiten duten aldagaitzat hartu zituzten sarritan parte-hartzaileek: «Yo sé que en mi euskaltegi muchos compañeros tienen nervios porque se les exige el euskera en el trabajo o les obligan para tener ciertos cargos o para mantener su puesto de trabajar, por lo que la ansiedad que se les crea es muchísima. Es muchísima la ansiedad que llegan a transmitir en esos momentos» (S.2), «En el trabajo tengo ansiedad a la hora de hablar en euskera, porque hay unas expectativas y tengo que ser lo más específica e intentar sacar el mejor euskera» (S.18). Zenbait iruzkinek agerian utzi zuten, bestalde, euskarazko hizkuntza-ziurtagiri bat lortzeko presioa hain handia dela, ezen zenbait euskaraz lantokian erabiltzen den hizkuntzat hartzen baitute, eta, beraz, lantokirik kanpo euskaraz jardutea saihesten dute: «Mucha gente relaciona el

euskera con su trabajo, en el trabajo la utilizarán pero fuera del mundo laboral no lo utilizan. Por ejemplo uno de mis amigos estudió todo en euskera, se sacó el EGA y desde el momento que se lo sacó ni con su padre que siempre hablaba en euskera ni con nadie quiere hablar en euskera, únicamente lo utiliza para trabajar» (S.2).

6. ONDORIOAK

Ikerketa honek Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan hiztun helduek euskararekiko duten komunikazio-antsietatea aztertzen du. Lehenengo ikerketa-galderak H1 gaztelania duten hiztunek beren H2 den euskararekiko sentitzen duten antsietateari erreparatzen dio. Datu kuantitatiboetatik lortutako emaitzek iradokitzen dute gaztelania H1 duten hiztunek antsietatea sentitzen dutela euskaraz jardutean. Eskolan euskara asko erabiltzen bada ere, H1 gaztelania duten hiztunek euskara eskolatik kanpo erabiltzeko aukera gutxiago dituzte. Jada aipatu dugunez, euskara sustatzeko urrats garrantzitsuak egin dira, eguneroko komunikazio arruntean ez ezik beste hainbat arlotan erabilia izan dadin, hala nola hezkuntzan, administrazio publikoan, justizian, osasun-zerbitzuetan, enpresa-munduan eta hedabideetan (Gorter *et al.*, 2014). Alabaina, euskarak hizkuntza gutxitua izaten jarraitzen du, eta euskararen ezagutza nabarmen areagotu den eta lehen eta bigarren hezkuntzan euskara irakats-hizkuntza nagusia den arren, H1 gaztelania duten hiztunek esposizio-denbora gutxiago dute euskararekiko, H1 euskara dutenek gaztelaniarekiko baino (Gorter *et al.*, 2014), eta oraindik arrakala nabarmena dago ezagutzaren eta gizarte-erabilerraren artean. Oso nabarmena da baita ere A, B eta D ereduaren arteko aldeak ikustea. Hezkuntzan euskara zenbat eta gehiago erabili (D ereduaren) antsietate maila hainbat eta baxuago da. Emaitza hauek eredu desberdinetan lortzen den gaitasun mailarekin lotura ere erakusten dute.

Bigarren ikerketa-galderaren bidez, euskararekiko komunikazio-antsietatea eragiten duten aldagaiak aztertu dira. Datu kualitatiboak oinarri hartuta, euskararekiko antsietatea eragiten duten sei faktore nagusi identifikatu genituen: akatsak egiteko beldurra, hizkuntza-maila, solaskideen jarrera, besteekiko alderaketa, hizkuntzaren garrantzia gizartearen eta hizkuntzaren garrantzia lantokian.

Egin genituen taldeko eztabaidek eta elkarrizketek agerian utzi zuten H1 gaztelania duten hiztun askok antsietatea sentitzen dutela euskaraz hitz egitean, akatsak egiteko eta besteen aurrean barregarri agertzeko beldur direlako. Eusko Jaurlaritzak 2015ean egindako ikerketan ere, parte-hartzaileek adierazi zuten larri eta urduri sentitzeko arrazoi nagusietako bat, beste faktore batzuen artean, akatsak egiteko beldurra zela.

H1 gaztelania duten hiztunek euskaraz jardutean sentitzen duten antsietatearen beste arrazoi nagusietako bat hizkuntza-maila –autopertzepzioaren arabera– da. Gure ikerketan, H1 gaztelania duten hiztunek adierazi zuten beren gaitasuna apalagoa zela euskaraz gaztelaniaz baino. Lehen ikusi dugunez, hizkuntza-maila eta gaitasunaren autopertzepzioa hizkuntza-antsietatearekin lotu izan diren aldagaiak dira. Ondorio hori

bat dator Liuk (2006), Thompson eta Lee-k (2013) eta Dewaele and MacIntyre (2014) egindako ikerketekin, non hizkuntza-maila eta autopertzepzioaren araberrako gaitasun-maila altuak antsietate-maila baxuekin lotu baitira.

Elebidun askoren H1 gaztelania da, eta errazago moldatzen dira hizkuntza horretan euskaraz baino. Hori dela eta, EAEko elebidunen artean, %44ek nahiago dute gaztelera erabiltzea nahiz eta euskara jakin (Eusko Jaurlaritza, 2016). Beraz, gaztelania ama-hizkuntza duten parte-hartzaileetako askok hitz egiterakoan solaskideen jarrerak duen garrantzia nabarmendu zuten. Horietako batzuk kritikatuak eta epaituak sentitzen dira euskaraz hitz egiten dutenean, batez ere H1 euskara dutenen aldetik. Euskarazko jatorrizko hiztunen (H1) maila ez dutela edo «benetako hiztunak» ez direla uste izateagatik, akatsak egiteko edo euskaraz behar adinako erraztasunaz ez jarduteko beldurra senti dezakete (O'Rourke & Pujolar, 2013; Ortega et al., 2016). H1 gaztelania duten hiztunak euskara irakats-hizkuntza den ereduetan –B edo D ereduetan– eskolatu arren, euskara ez da hizkuntza nagusia izaten beren gizarte-harremanen sareetan, eta ez dute hizkuntza eguneroko bizitzan edo testuinguru informaletan erabiltzeko aukerarik izaten. Maiz, euskara lantokian eta testuinguru formaletan bakarrik erabiltzen dute, eta, horrenbestez, testuinguru informala goetan automatikoki hizkuntzaz aldatzeko joera dute. Bestalde, euskarak lantokian duen garrantziaz gain, kontuan hartu behar dugu parte-hartzaileetako askok hizkuntza-ziurtagiri bat lortzeko presio handia sentitzen dutela.

Elkarrizketatu genituen hiztunetako batzuek antsietatea sentitu ohi dute beren gaitasuna ingurukoenarekin alderatzen dutenean. Iruditzen zaie ezin dituztela akats gehiegi egin, gizartean oro har dagoen euskara-maila dela-eta. Yoshidak (2013) nabarmendu zuen ikasleentzat oso garrantzitsua dela beren ikasleentzako gaitasun-maila zehaztea, beren mailarekin alderatuta. Ikasleak ohartzen baziren denek antzeko gaitasun-maila zutela, atzerriko hizkuntzarekiko ikasgelako antsietatea nabarmen baretzen zen. Antzeko ondorioak atera daitezke gure ikerketatik, gure testuingurua desberdina bada ere. Hain zuzen, euskaraz komunikazio-trebetasunetan maila altuagoa eta hizkuntzarekiko esposizio handiagoa izateak antsietatea murriztea eragin lezake. Horrek aditzera ematen du beharrezkoa dela euskararekiko esposizio handiagoa bultzatzea, bai eta gizarte-harremanetan euskararen erabilera sustatzea ere, H1 euskara dutenen laguntzarekin.

7. ERREFERENTZIAK

- Baran-Łucarz, M. (2011). The relationship between language anxiety and the actual and perceived levels of foreign language pronunciation. *Studies in Second Language Learning and Teaching*, 1(4), 491-514.
- Coulombe, D. (2000). *Anxiety and beliefs of French-as-a-second-language learners at the university level*. Tesi argitaragabea. University of Laval, Québec, Canada.
- DeVellis, R. F. (1991). *Scale Development Theory and Applications*. Newbury Park, CA: Sage.
- Dewaele, J.-M. (2002). Psychological and sociodemographic correlates of communicative anxiety in L2 and L3 production. *International Journal of Bilingualism*, 6(1), 23-38. doi: 10.1177/13670069020060010201
- Dewaele, J.-M. (2005). Investigating the psychological and emotional dimensions in instructed language learning: Obstacles and possibilities. *The Modern Language Journal*, 89(3), 367-380.
- Dewaele, J.-M. (2007a). Predicting language learners' grades in the L1, L2, L3 and L4: The effect of some psychological and sociocognitive variables. *International Journal of Multilingualism*, 4(3), 169-197. doi:10.2167/ijm080.0
- Dewaele, J.-M. (2007b). The effect of multilingualism sociobiographical and situational factors on communicative anxiety and foreign language anxiety of mature language learners. *International Journal of Bilingualism*, 11(4), 391-409. doi:10.1177/13670069070110040301
- Dewaele, J.-M., & MacIntyre, P. D. (2014). The two faces of Janus? Anxiety and enjoyment in the foreign language classroom. *Studies in Second Language Learning and Teaching*, 4(2), 237-274. doi:10.14746/ssl.2014.4.2.5
- Dewaele, J.-M., Petrides, K. V. & Furnham, A. (2008). Effects of trait emotional intelligence and sociobiographical variables on communicative anxiety and foreign language anxiety among adult multilinguals: A review and empirical investigation. *Language Learning*, 58(4), 911-960. doi:10.1111/j.1467-9922.2008.00482.x
- Dewaele, J.-M., & Thirtle, H. (2009). Why do some young learners drop foreign languages? A focus on learner-internal variables. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 12(6), 635-649. doi:10.1080/13670050802549656
- Donovan, L. A., & MacIntyre, P. D. (2004). Age and sex differences in willingness to communicate, communication apprehension, and self perceived competence. *Communication Research Reports*, 21(4), 420-427. doi:10.1080/08824090409360006
- Etxeberria, F. & Etxeberria, J. (2015). Bilingual education in the Basque Country (1960-2013). In F.V. Tochon (Ed). *Language Education Policy Unlimited: Global perspectives and local practices* (249.-277. or.). Wisconsin: Deep University Press.
- Eusko Jaurlaritza. (2015). *Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen lanketa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Hemendik hartua: http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/contenidos/libro/l_051806_0001_0002/es_def/index.shtml

- Eusko Jaurlaritza. (2016). *Eta hemendik aurrera zer?* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza Hitzkuntza Politikarako Sailburuordetza. Hemendik hartua: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/noticia/eta_hemendik/eu_def/adjuntos/Eta%20hemendik%20aurrera%20zer_2016-05-03.pdf
- Ewald, J. D. (2007). Foreign language learning anxiety in upper-level classes: Involving students as researchers. *Foreign Language Annals*, 40(1): 122-142. doi: 10.1111/j.1944-9720.2007.tb02857.x
- Gardner, R. C. & MacIntyre, P. D. (1993). A student's contributions to second-language learning. Part II: Affective variables. *Language teaching*, 26(01), 1-11. doi:10.1017/S0261444800000045
- Gorter, D., Zenotz, V., Etxague, X. & Cenoz, J. (2014). Multilingualism and European minority languages: the case of Basque. In D. Gorter, V. Zenotz & J. Cenoz (Eds.), *Minority languages and multilingual education: bridging the local and the global* (278.-301. or.). Berlin: Springer.
- Horwitz, E. K. (1986). Preliminary evidence for the reliability and validity of a foreign language anxiety scale. *TESOL Quarterly*, 20(3), 559-562. doi:10.2307/3586302
- Horwitz, E. K. (2001). Language anxiety and achievement. *Annual Review of Applied Linguistics*, 21, 112-126. doi:10.1017/S0267190501000071
- Horwitz, E. K., Horwitz, M. B. & Cope, J. (1986). Foreign language classroom anxiety. *The Modern Language Journal*, 70(2), 125-132. doi:10.1111/j.1540-4781.1986.tb05256.x
- Jee, M. J. (2014). Affective factors in Korean as a Foreign Language: anxiety and beliefs. *Language, Culture and Curriculum*, 27(2), 182-195. doi:10.1080/07908318.2014.918626
- Jiménez Catalán, R. M. & Ruiz de Zarobe, Y. (2009). The receptive vocabulary of EFL learners in two instructional contexts: CLIL versus non-CLIL instruction. In Y. Ruiz de Zarobe & R. M. Jiménez Catalán (Eds.), *Content and language integrated learning: Evidence from research in Europe* (81.-92. or.). Bristol, UK: Multilingual Matters.
- Kitano, K. (2001). Anxiety in the College Japanese Language Classroom. *The Modern Language Journal*, 85(4), 549-566. doi:10.1111/0026-7902.00125
- Liu, M. (2006). Anxiety in Chinese EFL students at different proficiency levels. *System*, 34(3), 301-316. doi:10.1016/j.system.2006.04.004
- Liu, M., & Jackson, J. (2008). An exploration of Chinese EFL learners unwillingness to communicate and foreign language anxiety. *The Modern Language Journal*, 92(1), 71-86. doi:10.1111/j.1540-4781.2008.00687.x
- MacIntyre, P. D. & Gardner, R. C. (1989). Anxiety and second language learning: Toward a theoretical clarification. *Language Learning*, 39(2), 251-275. doi:10.1111/j.1467-1770.1989.tb00423.x
- MacIntyre, P. D. & Gardner, R. C. (1991). Methods and results in the study of anxiety and language learning: A review of the literature. *Language learning*, 41(1), 85-117. doi:10.1111/j.1467-1770.1991.tb00677.x
- MacIntyre, P. D. Noels, K. A. & Clément, R. (1997). Biases in self ratings of second language proficiency: The role of language anxiety. *Language learning*, 47(2), 265-287. doi:10.1111/0023-8333.81997008

- McCroskey, J. C. & Richmond, V. P. (1990). Willingness to communicate: Differing cultural perspectives. *Southern Communication Journal*, 56(1), 72-77. doi:10.1080/10417949009372817
- O'Rourke, B., & Pujolar, J. (2013). From native speakers to «new speakers»–problem- atizing nativeness in language revitalization contexts. *Histoire Épistémologie Langage*, 35(2), 47-67.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea. Hemendik hartua: <https://blogs.deusto.es/euskalgaiak/wp-content/uploads/2016/11/Euskal-hiztun-berriak-2016-Deustuko-Unibertsitatea.pdf>
- Palacios, L. M. (1998). Foreign language anxiety and classroom environment: A study of Spanish university students (tesi argitaragabea). The University of Texas at Austin, Austin, TX.
- Perales, J. (1996). Ikasle helduen herxura euskara ikastea. *Hizpide*, 37, 32-52
- Rachman, S. (1998). *Anxiety*. East Sussex, UK: Psychology Press.
- Rubio, F. D. (2004). *La ansiedad en el aprendizaje de idiomas*. Huelva: Universidad de Huelva.
- Santos, A., Cenoz, J. & Gorter, D. (2015). Communicative anxiety in English as a third language. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 1-14. doi: 10.1080/13670050.2015.1105780
- Santos, A., Gorter, D. & Cenoz, J. (2017). Communicative anxiety in the second and third language. *International Journal of Multilingualism*, 14(1), 23-37. doi: 10.1080/14790718.2017.1258980
- Scovel, T. (1978). The effect of affect on foreign language learning: A review of the anxiety research. *Language learning*, 28(1), 129-142. doi:10.1111/j.1467-1770.1978.tb00309.x
- Sparks, R. L., Ganschow, L., Artzer, M., Siebenhar, D. & Plageman, M. (1997). Language anxiety and proficiency in a foreign language. *Perceptual and motor skills*, 85(2), 559-562. doi:10.2466/pms.1997.85.2.559
- Spielberger, C. D. (1983). *Manual for the State-Trait Anxiety Inventory (Form Y)*. Palo Alto, California: Consulting Psychologists Press.
- Thompson, A. S., & Lee, J. (2013). Anxiety and EFL: does multilingualism matter? *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 16(6), 730-749. doi:10.1080/13670050.2012.713322
- Woodrow, L. (2006). Anxiety and speaking English as a second language. *RELC journal*, 37(3), 308-328. doi:10.1177/0033688206071315
- Young, D. J. (1990). An investigation of students' perspectives on anxiety and speaking. *Foreign Language Annals*, 23(6), 539-553. doi:10.1111/j.1944-9720.1990.tb00424.x
- Yoshida, R. (2013). Learners' self-concept and use of the target language in foreign language classrooms. *System*, 41(4), 935-951. doi:10.1016/j.system.2013.09.003